

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan gure funtsezko elkarteak zehaztuko ditugu. Horiek gure negozio-eredua funtzionatzea ahalbidetzen dute, hornitzaile sarearen bidez.

Lan egiteko lokal bat behar dugu. UGGASA enpresak gu bezalako enpresa hasiberrientzako lokalak eskaintzen ditu. UGGASA aukeratu dugu Garapen Sozioekonomikorako Agentzia bat delako eta gure eskualdearentzat (Urola Garaia) egiten duelako lan. Beraz, eskaintzen dituen lokaletako bat alokatuko dugu, ofizina eta bilera gela edukitzeko.



Ikastolak ere funtsezko aliatuak dira gure proiektuan. Ikastetxeekin lankidetzan aritzea garrantzitsua da, gazteengana zuzenean iristeko eta ongizate emozionalaren inguruko informazioa hedatzeko. Ikastolen bidez tailerrak, hitzaldiak eta saio informatiboak antolatzeko aukera izango dugu.

Bestalde, erakunde eta profesional espezializatuekin ere lankidetzan arituko gara, hala nola Gema Moro (Gizaki) eta Roberto Aguado bezalako adituekin. Haien esperientziak eta ezagutzak gure zerbitzuaren kalitatea hobetuko dute, eta gazteei eskaintzen diegun laguntza profesionalagoa eta fidagarriagoa izatea ahalbidetuko dute.

Horrez gain, aliantzak edukiko ditugu hainbat egunkariarekin, beraiekin elkarlanean ibiliko baikara. Horien artean Goierriko Hitza, El Diario Vasco eta Berria aurkitzen dira. Hauengandik diru-laguntzak jasoko ditu gure enpresak, proiektuarekin jarraitu eta hobekuntzak egin ahal izateko. Gainera, beste hainbat elkarte ere proiektuan konfiantza ezarri eta finantzatu egingo dute, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta inguruko herrietako Udalek.

Azkenik, enpresa batek arrakasta izan dezan, beharrezkoa da eskaintzen den zerbitzua jakitera ematea. Horretarako, hainbat enpresa kontratatatu daitezke lan hori egiteaz arduratuko



direnak. Hala ere, gure kasuan, guk geuk publizitatuko dugu gure zerbitzua sare sozialen bidez. Tik Tok eta Instagram erabiliko ditugu hain zuzen ere.